

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK **ikus-entzunezkoak** LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

# La Habanako kaleak, euskal presentziaren lekuko isilak

Angel Gonzalez Katarainek martxan jarri du '7 Calles de La Habana' proiektua. Kubako hiriburuko kaleen euskal izenak aztertzen ditu, antzinako euskaldunen eragina islatuz eta iraganeko istorioak agertuz

 LUXUE RAZKIN



titzen. Hortaz, nahiago du bere indarrak beste gauza batera bideratu. Halere, aitortzen du diru laguntza eskuratzeak gauzak erraztuko lituzkeela. "Orain arte kolaboratzaileen laguntzarekin eramaten ari gara proiektua aurrera", adierazi du.

Oro har, proiektuaren garapenean sor daitezkeen zailtasunak mintzatu da. Zailtasunak erronkak bihurtzen direla dio, eta gutxinaka horiei aurre egiten diezula ezinbestean. "Batuetan galdetzen diozu zure buruari: norik hitz egin ahal dit, autoritatez, 1820ko inork ezagutzen ez duen pertsonaia bati buruz? Nola bidera dezaket dokumentala, aspergarria bihurtu ez dadin? Batuetan ez dugu lortzen ezta protagonisten irudi itxurorik ere...".

**B**ELASCOAIN, Zulueta, Goicuria dira, besteak beste, La Habanan aurki daitezkeen euskal kutsuko kale-izenak. *7 Calles de La Habana* proiektuaren bidez, Angel Gonzalez Katarain horien jatorria aztertzen hasi da, Amaia Apaolazaren laguntzarekin. Errealizadore eta zuzendari gisa gauzatzen ari den lehenengo lan honetan euskal emigranteen iraganen murgildu nahian dabil. "Ikerketa historiko bat da. Ikus-entzunezko formatuen bidez, euskal kultura berreskuratzea eta munduko beste txokoetan izan duen eragina erakustea da helburua", adierazi du zuzendariak. Zazpi dokumentalek osatzen dute proiektua, atal bakoitzak kalearen izena darama titulutzat eta horren jatorria izango du hizpide. Dena den, kaleak aztertzearen "aitzakia" besterik ez da beste istorioetan murgildu ahal izateko. "Kamera pasatzen uzten dugu eta batuetan jendeari galdetzen diegu, kalearen izenari eta jatorriari buruz zer dakiten jakiteko".

Zazpi dokumental horietatik *-Belascoain, Zulueta, Espada, Ayestaran, Aranguren, Goicuria eta Loynaz-*, dagoeneko bi amaitu dituela azaltzen du Gonzalezek, eta lanze prozesu horretan oraindik ez omen du gauza negatiborik aurkitu. Bai, ordea, harritu duen gauza bat: "Euskaldunak horrelakoak garena eta beti horrelakoak izan gara ikustea: *cabezones de cajones*, onerako eta txarrerako". Dokumentalen lanke-tari jarraiki, zuzendariak dio ez duela beti eskema berdina jarraituko. "Kale bakoitzak nahi duen bide-tik eramaten zaitu". Adibidez, Belascoain delakoan, asfaltoaren presentzia Zulueta-arenean baino naba-

riagoa dela esaten du, baina azken horretan, ordea, pertsonaia dauka pisurik handiena. "Gidoi bat imajinatzea gustatzen zait -dio zuzendariak-, eta gustuko dut ere ikustea nola nahaspilatzen den guztia gero berriz ordenatzeko".

La Habanako kaleen euskal izenak aztertzearen ideia "naturalki" etorri zitziola baieztatu du: "Horrelako zerbait islatzeko gogoia eta nahia neukan". Gonzalezek dioenez, Kubara iritsi aurretik bazeuden jada emigrante euskaldunen iraganari buruzko ikerketa-lanak. Azken finean, informazio hori guztia xurgatzea eta lan horiek burutu dituzten pertsona haiez kutsatzea izan da gakoa: "Haien lanetan sakondu dut, lan horiek arakatu, informazioa kontrastatu eta nire posibilitateen artean eguneratutako proiektzioa bilatu dut". Ikus-entzunezko egitasmo hau martxan jartzeko arrazoi bi aipatu ditu. Lehenik, historian adituak zirenen laguntza zuela jakitea izan zen: "Pertsona horien laguntzarik gabe proiektua ez litzateke gauzatuko". Bestetik, historia aztertutakoan, pertsonaien barne liskarrak eta bizitzaren gorabeherak ezagutzea. "Influentzia handiko pertsonaia dira, beti dago bitxikeriaren bat haien bizitzan. Istorio zoragarriak dira, tristeak, zentzubakoak...".

**LAGUNTZA BARIK** Proiektua abian jartzeko ez dute diru laguntzarik eskatu. "Laguntza lortzeak energia kostu handia eskatzen du, jasotakoaren zenbatekoa baino handiagoa ziurrenik". Zuzendariak gaineratzen du eremu horretan ez dela "oso eroso" sen-

## INTERNETEN IKUSGAI

'Semillas en el tiempo' bezalako lan asko daudela aitortzen du Gonzalez Katarain zuzendariak. "Mota honetako proiektu anitz bideratu dira eta gehienak liburutegietan, unibertsitateetan, ebe-partikularretan eta kultura zentroetan aurki daitezke", zehazten du. Hala, beren webgunearen bidez ([semillaseneltiempo.com](http://semillaseneltiempo.com)), '7 calles de La Habana' dokumentalaz gain beste edulri batzuek izango dira ikusgai. Bada, edulriak iragarri eta gutxinaka gutxinaka horiek osatuz joatea da haien jomuga. "Kubarekin hasi gara, baina beste nazioetako istorioak ere gehitu daitezke Semillas en el tiempo' lan honetan". Proiektu honen edulri guztiak internetarako formatu eguneratuetan ere bideratuko dituzte.

Esan bezala, euskaldunok La Habanan izandako presentzia islatzea da asmo nagusia. Ahaztuta dagoen iragana gerturatzea, alegia. "Proiektuak jendearen eraginean bat izatea gustatuko litzaidake". Baina Gonzalezek ez du bere burua saltzaile ontzat ikusten: "Produktua saltzen ez badakizu, zure lana ez da jendearengana iritsiko. Gainera, normalean antzinako istorioak jendeari ez zaizkio interesatzen", azpimarratu du. Edonola ere, ez du motibazioa galdu. Lan honek euskal kulturaren historia jendeari gerturatzeko balio dezakeela pentsatzen du, baina argi utzi du bere lehendabiziko motibazioa ez dela kulturala: "Egiten dudana gustukoa izatea, hori da niretzat motibazioa".

**AHAZTETIK SALBATUTAKO ISTORIOAK** Gaur gaurkoko honekin jarraituko duela dio zuzendariak, nahiz eta beste proiektu batuetan murgilduta dagoen. Horiek guztiak *Semillas en el tiempo* egitasmoa osatzen dute. Aipatutako *7 calles de La Habana* lana da horietako bat. Horretaz gain, etorkizun hurbil batean amaitu gabe dagoen *A la Medianoche* dokumentalarekin jarraitu nahi duela dio. Honetan, Javier Arzuagaren bizitza kontatzen da, Kubara bidali zuten Oñatiko frantziskotar ohiaren bizitza, alegia. Beraz, *Semillas en el tiempo* proiektua amaierarik gabekoa lana da Gonzalezentzat. Bere esanetan: "Beti ongogo dira ahaztetik salbatu daitezkeen istorioak. Baina baliteke noizbait hau guztia amaitzea, formaz aldatzea, baliteke norbaitek txanda hartzea eta ni bigarren plano batean gelditzea...".



Lan honen bidez, Gonzalezek argi geratu zaion gauza bat zera da: "Euskaldunak beti horrelakoak izan gara: 'cabezones de cajones', onerako eta txarrerako". ANGEL GONZALEZ KATARAIN